

BASATI MARGOLARIAK, KARLOMAGNO, OTON, MOZARABEAK

Erdi-aroaren asiera illunean margo-lana ikustera goaz. Erromatarren aginterri aundia jausi eta onen lurraldea basatiz bete zan aldia.

Italia'n ostrogodoak eta Ionbardoak daukaguz eta oneik ez eben margotze-lan aundirik egin. Margo-antzeko gauzak diran Aita Santuaren emoitza dan "Teudolinda'ren ebanjelio-liburua" eta "Zidarrezko oilloa ta zazpi txitak", au be Gregorio Aundia aita santuak Teodolinda'ri emona. Ez dago argi zer esan nai dauan.

Aldi beratan España'n bisigodoak daukaguz eta onein lanik onenak liburu-etako apaingarriak dira edo miniaturak dira. Eleizetako ormetan be agiri dira apaingarriak, esaterako San Juan de Baños'en.

Frankoak izkilluetan egiten dabezan apaingarriak daukaguz, baita kutxa margotuak be.

Ikusten da asierako margolari lan au, miniaturen bide-tik doala.

Irlanda'n aldi onetan liburu apaindu asko egin ziran, baiña amabost bat dira zaintzen diranak eta guztiak ogeta amar urteren barruan egiñak, geienetan ebanjelio apainduak, VIII gizaldikoak. Eta erabilten dabezan margoak orlegia, beillegi edo oria eta gorritzkea dira.

Inglatera'n be egiten dira olako lanak baiña egilleak Irlanda'tik ara joandako lekaideak dira.

Eskandinabia'n zer erakutsi gitxi daukagu eta ez dauke kristiñau-kutsurik, pizti biurriak eta txorien buruakaz agertzen dabez.



Guzti orreik baiña aberatsagoa da Karlomagno'ren aldia.

Giro onetan ardura aundiz apaintzen dira liburuak miniaturakaz eta lekaideen lana da, batez be IX gizaldian eta errege-etxeko oiturak eta kondaira edo leiendak agertzen dabez.

Zarrenetariko bat "Gonduino'ren ebanjelioa" da: Kristo agiri da bere jarlekuan eta lau zokoetan lau ebanjelarien irudiak. Margoak arruntak dira.

Akisgran'go eskola zan ospetsua miniatura-lanean eta onek Bizantzio'n be ikutua egin eban. Lan ederrak eta biziak dira.

IX gizaldian Reims'ko eskolea daukagu eta onen lanak be ederrak dira.

Baiña askoz ohea da Tours'ko eskolea, 846n urte inguruan: iru maillatan agertzen dau

Edestia eta kondaira edo leiendea, baiña orri osoa bate-ra Lotario'ren ebanjelioak.

Aldi onetako margolari ospetsuak Berenguer eta Lutardo.

IX gizaldian angloen indarra dator eta tankera barria.

Ormak margotzen be asi dira eta mosaiko onak be egiten dabez ugari, ebanjelio-gaiakaz. Miniaturak be aurrera doan batez be Konstantza'ko lekide-etxean, frankoi eta lonbardoai jarraituz.

Oton (I, II, III)'en aldiko liburu apainduak be asko dagoz luburtegi-tan, Paris'en, Treveris'en, Munich'en, eta geienak ebanjelio margotuak dira. XI gizaldian galdu zan zaletasun aundi au.

España'n Asturias'eko artea eta mozarabeena daukaguz aldi onetan eta ospetsuak dira San Julian de los Prados'eko marrazkiak.

Orma-umel edo fresko onak dagoz or, baiña margoak galduta eta txarto zainduta.

Valdedios'en be antzeko freskoak dagoz.

VII gizaldiko margo-giroari jarraituz Beato de Liebana'ko lekaideak doguz ospetsuak miniturak egiten, XI gizaldira arte. Bisigoten eta arabiarren antza dauke eta liburu orreitan gaiak Kontzilioak, Biblia eta batez be apokalipsis liburua dira eta antifonarioak be bai. Miniatura guzti onei Beatoak deritxe.

Leon'go biblia Vimara abadeak margotua da. Ez da zeatz-zeatza baiña mistika-indar aundia dauka.

968n. urte inguruan Magius miniatura-zale ospetsua daukagu, guztien artean onena.

Orma-margoak be ba-dagoz baiña mozarabeen artean ez askorik. San Quirze'ko freskoak, X gizaldikoak, miniaturen gaiak eurak daukez.

Amaitzeko, arrigarria da aldi onetan lekaideak euren idaztegi-tan egin eben lana, bai liburuak zabaltzen eta bai liburu oneik apaintzen, Europa osoan ikusi dogun lez.

Olazar'tar Martin'ek

